

New Yorken egonaldia egiteko EAeko ikasleentzako eta artista hasiberrientzako beketarako deialdia egiten dute Guggenheim Museok

Bilboko eta New Yorkeko Guggenheim Museok EAeko ikasleentzako eta artista hasiberrientzako beka-egitarau bana abian jarri dute; programa New Yorken garatuko da. Izena emateko epea gaur hasten da, martxoaren 30ean, eta maiatzaren 4an amaitzen da. Orduan hasiko dute Guggenheim Museok hautagai kualifikatuen aukeraketa-prozesua. Ekimen hau 2014ko abenduan Guggenheim Bilbao Museok Solomon R. Guggenheim Foundation-ekin sinatutako kudeaketa akordioaren berritzean barne hartzen da, zeinaren arabera bi erakundeek haien arteko lankidetzan askotariko proiektuen bidez sakonduko duten.

Lehen egitaraua EAeko ikasleei zuzentzen zaie: graduako azken ikasturtean daudenei, ikasle graduatu berriei zein graduondoko ikasleei. Lau beka eskainiko dira, New Yorkeko Guggenheim Museon hiru hileko trebakuntza-egonaldia egiteko. Helburu dute artearen eta museogintzaren eremuko esperientzia profesionala helaraztea, hautagaiaren ikasketetara eta interesetara hoberen egokitzen den museoko arloan. Praktikaldian, ikasleek museoko hainbat proiektuetan esku hartzeko aukera izango dute, beste arloekin elkarlanean, eta, horrez gain, egonaldia osatzeko, New Yorkeko zenbait galeria, bilduma pribatu, enkante-etxe eta museo bisitatuko dituzte. Lau egonaldiak 2015eko iraila eta abendu artean egingo dira, eta bakoitzak 3.500 dolarretako diru-laguntza izango du.

Bigarren egitaraua EAeko artista hasiberrientzako da. Bi artista aukeratuko dituzte, eta hautatutakoek New Yorken, lau astez, hainbat jardueratan parte hartuko dute, bertako arte-giroa sakonetik ezagutzeko, haien gaitasun profesionalak hobe ditzaten eta haien helburuak betetzeko tresna egokiagoak gara ditzaten. New Yorkeko Guggenheim Museoko profesionalen eskutik jakingo dute bertako artistek, komisarioek eta erakundeek zer-nolako lana egiten duten. Programa 2015eko urrian egingo da eta diru-laguntza, artista bakoitzarentzat, 2.500 dolarretakoa izango da.

Interesdunek www.guggenheim-bilbao.es/empleo-y-practicas/basque-internships/ eta www.guggenheim-bilbao.es/empleo-y-practicas/basque-artist-program/ orrietan begira ditzakete deialdiaren oinarriak eta bertan eman dezakete izena. Gainera, ikasleentzako beken inguruko argibide zehatzak apirilaren 18an (larunbata) emango dira Guggenheim Bilbao Museon, ateak zabalik jardunaldi batean. 11:00etatik 14:00etara izango da, Museoko Zero Espazioan.

Bilbon, 2015eko martxoaren 30ean